

MEDIKAMENTUEKIN HUTSEGITEAK EKIDITEKO GOMENDIOAK PAZIENTEARENTZAT



1. MEDIKAMENTUEN **ZERRENDA** EGUNERATUA EDUKI EZAZU, bitaminak, sendabelarrak, etab. barne hartzen dituelarik. Medikamentuen izenak, dosiak, noiz eta nola eta noiz arte hartu behar dituzun apunta ezazu. Zure erizainak, medikuak edo farmazialariak lagunduko dizute zerrenda egiten. **HARTU OHI DITUZUN MEDIKAMENTU GUZTIAK JASOTZEN DITUEN ZERRENDAREN KOPIA ALDEAN ERAMAN EZAZU BETI**, zure osasun zentrora edo ospitalera, publikora zein pribatura zoazen aldiro.
2. Uneren batean medikazioa **ALDATZEN** baldin badizute, zure medikuari jakinarazi iezaiozu.
3. **EZ** itzazu beste pertsona batzuei agindutako **MEDIKAMENTUAK HARTU** medikuarekin **KONTSULTATU BARIK**.
4. Hartzen ari zaren medikamentua behar bezala ikusten duzula egiaztatu ezazu (piztu ezazu argia, betaurrekoak jantzi itzazu). Pentsa ezazu **MEDIKAMENTU ASKOREN ONTZIAK, FORMAK ETA KOLOREAK ANTZEKOAK DIRELA**.
5. Ospitaleratu baldin bazaituzte, alta ematen dizuten momentuan **ZERRENDA EGUNERATU** ezazu zure medikuarekin batera. **MEDIKAMENTUAK EZ ITZAZU PILATU..**
6. **EGIAZTA EZAZU BETI**, osasun zentrotik nahiz ospitaletik atera orduan, ematen dizkizuten errezetak zeuri dagozkizunak direla.
7. **MEDIKAMENTUREN** bati **ALERGIA** badiozu, **GOGORARAZI IEZAIOSU BETI ARRETA EMATEN DIZUN PERTSONA ORORI**.
8. Tratamendua **BEHAR BEZALA BETE EZAZU**. Hala egin ezean, zure osasunari kalte handia eragin diezaiokezu. Medikazioren bat hartzeari utzi aurretik, zure medikuari kontsulta iezaiozu.
9. **ZEIN** medikamentu, **NOLA**, **NOIZ** eta **ZERTARAKO** hartzen dituzun jakitea garrantzitsua da. Ez zaitez kontsultatik atera informazio hori argitu gabe.
10. **ZURE OHIKO MEDIKAZIOA HARTZEARI EZ UTZI**. Medikamentuak hartu behar dituzula gogoratzeko sistemak (bistan utzi, alarmak, pastilla-kaxak, etab.) balia itzazu.

*BiEko Pazientearen Segurtasunerako Taldea
BiE Kronikoak Taldea*

